

URAK eta kultURAK bat egiten duten ibilbidea

Onin bidea. Mediateka Lesakan

Laida Juanikorena Agirre
Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoa, 2010
Tutorea: Amaia Casado Rezola



Proiektu hau Onin erreken ardatzean oinarritzen da; hari jarraituz, Lesaka herria zeharkatzen duen kultur ibilbide ardatz bat sortuko da. Egun erreka duen presentzia areagotu eta intentsifikatuko du, herritarrek erreka-bide osoan zehar modu desberdinean izan dezaten erlazioa urarekin. Horretarako, gaur ezkututa eta erabileraz kanpo dauden tokiak, hala nola labaderoa, erreka-bazterrak, eta Onin erreka eta Biurrana erreken arteko konexioa, ardatz berri horren bidez berreskuratuko dira.

Bi eskala lantzen ditu proiektuak. Lehenengo hurbilketa kultur ardatz bat sortzen du Onin errekarri jarraiki. Julio Caro Barojaren analiziaz baliatuz eta Lesakaren sorrera aztertuz, erabat nabaria da hiribilduko ardatz nagusia herrirako sarrera ahalbidetzen duen mendebalde-ekialde ardatzak osatzen duela. Ardatz nagusi horri elkarzut, Onin erreka (hego-iparralde) osatzen duena lotzen zaio bigarren maila batean, baina puntualki garrantzi nabarmena hartzen du, nahiz eta, erreka, batez beste 3 m zabal den emari urriko kanal estua izan. Herriak historian zehar errekaekin izan duen erlazioa aztertu du lan honek; ia bere osotasunean

erreken hurbiltasunak osatzen baititu espazio publikorik esanguratsuenak. Erreka eraikinetatik gertu eta herriaren parte izateak puntu interesgarri anitz ditu, hainbat erabilera estetiko, praktiko eta sozial bateratzen ditu. Hortaz, proiektu honek hiribilduak urarekin duen erlazioa azpimarratu eta indartuko du, Onin-bidea kultur ardatza sortuz.

Kultur eraikin masibo eta zentralizatu baten ordez, esku-hartze puntual eta txikiak planteatzen dira, beharren arabera eraikiko direnak, herriaren eskala eta Erdi Aroko lotea mantenduaz, eta, bidenabar, Lesakako arkitektura-ondarea berreskuratu eta mantenduko dutenak, elementu berriak gehituz. Horretarako, lau toki aukeratu dira, batetik bestera oinez bost minutu baino gutxiagoko distantziara daudenak, eta, paisaia eta arkitekturari dagokionez, interes bizia dutenak bertan kultur erabilera bat kokatzeko: Bordinea jauregian musika-eskola, Zabaleta dorrean, dorre-museoa, Eskoltiki + labaderoan mediateka, eta Karmeliten Komentuan areto nagusia.




Bigarren hurbilketan Eskoltiki eta labaderoa barne hartzen dituen mediateka garatuko da. Bertan pilatzen baitira erreken inguruko esku-hartze gehienak. Eraikin horrek Lesakako Erdi Aroko lote-banaketaren eskala eta izaera gordetzen ditu, lotea berrinterpretatuz eta sinplifikatuz, eta errekarari eta labaderoari bizkar ematen dien asfaltuzko aparkaleku bat ordezkatzeko da.


Eskoltiki eraikina barne hartuko du irisgarritasuna hobetuz, baita labaderoa berreskuratu ere proiektuan barneratuz, eta, bidenabar, erreken kanalizazio-proposamen berriak herriarekiko konexioa berreskuratu eta nabarmenduko du. Noski, oinezko zirkulazio berriak aiantzi gabe, kultur ardatzari jarraituko diote bere amaieraraino, eremua Lesakako mapan berriro ere kokatuz. Izan ere, nahiz eta toki estrategikoan kokaturik egon, egun bigarren maila batean geratzen da alde hori.

Materialek eta eraikuntza-prozesuak ere berrinterpretazioa eta sinplifikatzea bilatzen dute. Egituran harrizko karga-

horma hormigoiak islatuko du, eraikin osoan zehar zokaloa marraztuta. Estalkiak bi isurialdeko tradizionalak ageri dira kalerantz, baina ibai aldera hurbildu ahala hausten doaz; bolumenek, oro har, inguruetako eragin-faktoreei erantzuten diete, kaleen zentzuak, argiztapena eta banaketak lursailera egokituaz. Dorreak herriko dorretxei keinu xumea egin nahi die, eta herriko zenbait eraikin historikoren moduan, erreken ertzera hurbiltzen da eraikina, fatxada-azalak erreka bera ukitu arte. Zurezko lamez osotutako fatxadak, alde batetik, bere sasigardentasunak eraikinaren lote-banaketaren, eta barruan gertatzen denaren berri ematen digu; baina era berean, material bateratasunak urruneko eskalan kultur eraikinari izaera finko bat ematen dio. Argiaren sarrera neurtzeko bide paregabea dela ezin da aiantzi, liburutegi gisa erabiltzeko alegia.

Akupuntura-ariketa honek urak herriko erroetan duen garrantzia oroitarazten digu; izan ere, Lesakan erreken emariak kultura dakar.





Irudia – Maketaren argazkia. Errekarantz irekitzen den mendebaldeko fatxadaren ikuspegia



Irudia – Planta nagusia. Loteak eta ibilbideak herrira zabalduz